

## 5.000 plazatik gora 2019ko udako ekintzetan

- EAEko 51 eskola eta astialdi taldek antolatutako opor jarduerak bildu ditu EGK-k

*Bilbon, 2019ko ekainaren 24an.* Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta honek koordinatzen duen Astialdi Foroak eskolek, astialdi taldeek eta federazioek 2019ko udako ekintzen berri eman dute gaur goizean. Elkarteen plataformak adierazi duenez “aurtengo eskaintza ere oso zabala da, 5.000 plazatik gorakoa”. Ekintza hauek, gainera mota askotakoak direla zehaztu dute: “Udalekuak, kanpaldiak, Auzolandegiak, udaleku ibiltariak, zirku udalekuak, atzerrian egonaldiak, edo familiarterko eskaintza”, besteak beste. “Izaera anitzekoak eta modu askotakoak dira, edozeinek parte hartzeko modukoak”.

“Balore hezitzailetan oinarrituta eta kalitatezko ekintzak eskaintzearen konpromisoarekin, EAEko astialdiko boluntarioek ekimen anitz burutu dituzte”, azaldu du elkarteen plataformak. EGK-k zehaztu duenaren arabera, Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, 51 elkarteen opor-jarduerak jaso dira, guztira 5.000 plazatik gora eskainiko dituztenak udako ekintza hauetan. “Egitasmo oso zabalak dira, aukera mordoa dago bakoitzak berea topa dezan”.

### Urtean zehar egindako lanaren isla

Udako ekintzak Euskadiko astialdi taldeetako boluntarioek “urtean zehar egiten duten lanaren isla” dira, eskainitako “ordu guztien adibide eta erakusgarri”. Hori dela eta, EGK-k lan hori guztia “azpimarratzearen beharra” nabarmendu du, “gizartean merezi duen aitorea” lortzeko.

Udako ekintzak antolatzen dituzten elkarreek atzean duten pertsonen esfortzuari aipamen berezia egin nahi izan diote. Izan ere, udako ekintzak “urte osoan egindako esfortzu eta lanaren unerik gorenena” badira ere, ezinbestekotzat jo dute “urtean zehar” egiten den lana “azpimarratzea eta mirestea”. Ildo honetatik, zehaztu dute eskaintza “irekia dela” eta urtean zehar murgilduta ez dauden haur eta gazteei ere ateak “zabalduta” dizkiete programa barrutik ezagutzeko. Zentzu horretan, EGK-k “inguru hurbileko elkarteen ekintzak aukeratzea” aholkatu du.

### Informazioa non lortu

Elkarreek plataformak garrantzia berezia eman nahi izan die “Astialdi munduan urte osoan zehar lanean dabiltzan taldeei” eta, era berean, “balore hezitzaileetan oinarritutako eta kalitatezko ekintzak bultzatzen jarraitzeko konpromisoan” berretsi da.

2019ko udari begira EGK eta Astialdi Foroa osatzen duten elkarreek antolatutako ekintzen informazio guztia [www.egk.eus](http://www.egk.eus) eta [www.astialdiforoa.org](http://www.astialdiforoa.org) atarietan topa daiteke, baita elkarre-antolatzaileen helbideak, kontakturako bideak eta datuak ere.

EGK-k, Astialdi Foroan federazioek, astialdi taldeek eta eskolek dituzten proposamenak batzen ditu astialdi hezitzaile boluntarioen taldeak merezi duen garrantzia emateko. Kontuan hartu beharrekoa da talde horiek gizartearen beharretara egokitzen direla beraien urteko ekintzetan, bereziki etxeko txiki eta gazteentzako astialdiko aukerak bideratuz. Kanpaina honekin egiten den lan guzti hura mahai gainean jarri nahi da eta eskaintzen den kalitatezko hezkuntza eta gizarte eraldaketa aitortu.